

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kristina Iturrioz Burgoa

*Gernika-Lumo,
Bizkaia
(1934-2023)*

Aurkibidea



Biografia



Bilbon jaio arren, bi hilabete zituela Gernikako Zabalgojeaskoa-Badiola familiak hartu zuen eta bertan hazi eta bizi izan zen, Txikarrarenean. Gurasoak gernikarrak ziren. Bere eskolako lagun eta auzokide izandako [Esther Moriones](#)egaz batera kontatu zizkigun umetako zein gaztetako bizipenak eta kontuak. Muxikako Jesus Uriarte "Ponpon"egaz ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituen.

Zintak

GER-101

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-02-24
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

GER-102

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-02-24
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Euskaraz egitea debekatuta eskolan

- **Erref:** GER-101/012
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:20:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Eskolan ez zieten uzten euskaraz egiten. Izen euskalduna zutenei aldatu egin zieten. Behin eskolakide batek salatu egin zuen Kristina euskaraz berba egiteagatik, eta maistrak zigortu egin zuen. Gernikarrak ziren bi maistrak. Izenak ematen ditu. Doña Florenciari buruz diote jo ez zuela egiten baina "txitximurke" bai, orratzak bailiran.

2. Estherri ez zitzaion eskola gustatzen

- **Erref:** GER-101/013
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:20:45. **Bukatu:** 00:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolatik etxerakoan pregoia jotzen ari baziren, entzuten gelditzen zen Kristina. Gero etxera heldu eta amari esaten zion errazionamendu kartilaz zer hartu zitekeen egun hartan. Baina hala ere pozik bizi ziren. Estherrek pira egiten zuen inoiz eskolatik. Behin perrexil sorta batekin agertu ziren maistrarengana. Honek barre egitea beste erremediorik ez zuen izan. Ez zitzaion eskola batere gustatzen.

3. Ikasgaiak eta eskolako materiala

- **Erref:** GER-101/017
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:28:28. **Bukatu:** 00:30:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Arratsaldetan aritmetika ikasten zuten. Goizean errezuak eta Espainiako Historia. Ikaskide bihurri bati maistrak erregela bota zionekoa. Gramatika, Geografia, Historia... dena liburu batetik ikasten zen. Liburua, koaderno eta pizarratxoa ziren beren tresnak. Eskolan sartu orduko Cara al Sol kantatzen zuten.</p>

4. "Sombras chinescas", itzal txinatarrak horman

- **Erref:** GER-101/025
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:40:40. **Bukatu:** 00:41:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Nagusituta gero ere jolasean ibiltzen ziren Txikerra auzoan. Gauez autoak pasatzen zirenean "itzal txinatarrak" egiten zituzten argiaz horman. "Pelikulier izetie lez".

5. Zinera domeketan

- **Erref:** GER-101/026
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:41:34. **Bukatu:** 00:43:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Partxisean ere egiten zuten. Zinera domeketan, Lizeora gehienetan, gehiago gustatzen zitzaien-eta "Tilos" baino. Astegunean ere egoten zen zinea baina ez zuten joateko dirurik. Bi pezetako paga izaten zuen Estherrek asteburuetan.

6. Gosea pasatu zuten gerraostean

- **Erref:** GER-101/027
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:43:10. **Bukatu:** 00:46:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ez dute bizimodu erraza izan. Arrazionamendua ezagutu dute. Esther ogi bila joan eta bidean jaten zuen gehiena. Gose handia pasatakoak dira. Estraperloan dena oso garesti zegoen. Ez zuten baserriko seniderik. Izan ziren estu ibilitako familia baserritarrak ere. Amari irin apur bat ekartzen zioten inoiz taloak egiteko, baina janaria oso urri ibiltzen zen. Sakarina erabiltzen zen azukrearen ordez.

7. Purruteneko dendan arrazionamendua

- **Erref:** GER-101/028
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:46:40. **Bukatu:** 00:48:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Libretatxo batez joaten ziren dendara janari bila. Ezin zuten gura zuten guztia erosi. Errenterian Purruteneko dendan erosten zuen Estherren familiak gehienetan. Zergatik deitzen zitzaion "Purrut". Kristina, berriz, Makazagarenera joaten zen.

8. 'Ponpon' eta 'Bake' ezizenak

- **Erref:** GER-101/029
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:48:44. **Bukatu:** 00:52:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Behin Kristina senararen bila joan zen lantegira. Guardia zibilek egiten zuten atezain lana. Jesus Uriartegatik galdetu eta ez zekiten nor zen. Ponpon esanda, ostera, berehala bilatu zuten. Pertsona batzuen ezizena besterik ez zen jakiten. Osterantzean, ezagutu ere ez. Aitaitak danborra jotzen zuelako zuten Ponpon ezizena. Estherren gizona, berriz, Bake zen, Ajangizkoa. "Hoba bakie" esaten ei zuen aitaitak, eta horrela Bake zen, Bake ezizenaz geratu zen. Seme-alabei ere Bake deitzen diete.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com